

## BALIOA

Jakinik ditugun lehengaiak mugatuak direla eta horien produkzio masiboak pixkanaka agortzea eragiten duela, epe luzera iraunkorrakoak diren produktuak eskaintzen ditugu. Nahiz eta, ohiko produktuen prezioekin alderatuz garestiagoak izan, epe luzera errentagarriagoak dira, behin eta berriz produktu berdina erostea saihesten baitugu eta horrez gain, gure bezeroek ingurunearekiko duten sentsibilizazioa handitzea lortzen dugu. Zergatik diren garestiagoak produktu arruntekin alderatuz?

Alde batetik, produkzio-kostua handiagoa delako eta beste aldetik, produkzio prozesua luzeagoa delako. Esaterako, konpresak, telazko poltsak eta fardelen kasuan. Baina produkzio-kostua altua izateak ez du eragin behar horiek erosteko desira geldiaraztea, hain zuzen ere, egiten hari garen aldaketa hori onuragarria izango dela, bai ingurunearentzat bai eta, bertan bizi diren bizidun guztientzat.

Izan ere, uste dugu ingurunearekiko inpaktua txikitzeko modu paregabea dela, produktu arrunten bilgarri plastiko eta sintetikoak baitira itsaso eta lurrak kutsatzen dituztenak. Gainera, plastikoak naturan degradatzeko behar duen urte kopurua da epe luzera zabor pilaketa handiak eragiten dituenak. Horren adibide garbia da, Ozeano Barean sortu den zabor uhartea. Haren tamainaz jabetzeko, zabor multzoa ia Portugal eta Espainiako estatuak baino hiru aldiz handiagoa da.

Horrez gain, gure produktuen prezioa ezartzerako garaian, helburu bera bultzatzen duten beste enpresen prezioak alderatuko ditugu. Horrela, ahalik eta etekin handienak ateratzen saiatuko gara. Gainera, produktuen diseinu zabala eskaintzea pentsatu dugu, horrela gizarteko adin ezberdinetako pertsonak eskuratu ahal izango dituzte. Gure produktuak diseinatzeaz gu arduratuko gara, horrela diseinu propioak izango dira, eta irudi pertsonalizatu horiek noizean behin aldatzen joango gara aukera ezberdinak eskainiz.

Eskainiko ditugun produktuak:

**Banbu eta algodoi organikoak bastonzilloak****Konpresak****Hortzak garbitzeko zepilua****Pasta****Poltsak****Gela/txanpua****Kutxilak****Kafe kapsulak****Kopa****Desodorantea****Guatak****Pardelak**



**Botilak**



**Pajitak**



**Silikonazko tapak**

